

005/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 16koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Uribeko ESIko zuzendari-gerentearen urriaren 28ko 452/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESIko Digestio Aparatuko Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko abenduaren 2ko EHAA 234. zk. eta 2024ko abenduaren 9ko BOE 296 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko abenduaren 31n amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESIko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaurik, Osakidetza ESTATUTU Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Uribeko ESIko Digestio Aparatuko Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Uribeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2025eko urtarrilaren 16a

Izpta. Jesús M. Suárez Romay / Fdo.: Jesús M. Suárez Romay
Uribeko ESIko Zuzendari Gerentea / Director Gerente OSI Uribe

I. ERANSKINA

URIBEKO ESI-KO DIGESTIO APARATUKO SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- HARITZ CORTES PEREZ

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.